

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA NAFARROAKO
KOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA PROTOKOLOAREN SINADURA
FIRMA DEL PROTOCOLO DE COLABORACION ENTRE LAS COMUNIDADES
DEL PAÍS VASCO Y NAVARRA**

2016-05-10 Ajuria Enea 10-05-2016

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Nafarroako presidente andrea, sailburuok, jaun andreok, egun on.

Gure bi Gobernu Kontseiluetan aurreko astean Lankidetzaren Protokolo Orokorra onartu genuen eta gaur sinatu egin dugu. Lingua navarrorum-a erabiliz emango diogu hasiera aurkezpen agerraldi honi.

Nafarroako Foru Komunitatean eta Euskal Autonomia Erkidegoan sustrai historiko komunak ditugu. Komunitate historikoak gara. Lotura sakonak eta zabalak izan ditugu gure historian zehar. Euskarak eta kulturak lotzen gaitu. Baita ere ekonomiaren, gizartearen eta erakundearen harremanak ere.

Harreman estua eta lankidetzaren tradizio luzea da gure Komunitatearen artekoa. Orain, aurrera pauso bat ematea da gure helburua: azken hamarkada hauetan gure arteko desberdintasunetan arreta jarri den bezala, etapa berri honetan harremanak, lankidetzaren eta elkar-lana sustatu eta zabaldu nahi ditugu.

Gaur sinatu dugun Akordio hau ez da zerotik abiatzen. Duela bi hamarkada lehen ahalegin bat jarri zen martxan, bi Gobernuen artean Lankidetzaren Protokolo bat sinatuz, duela zazpi urte berretsi zena. Oinarri hori hartuta, harremanak areagotu nahi ditugu. Horregatik berreskuratu eta eguneratu dugu Protokolo hura.

Azken urte honetan gure bi Erkidegoen arteko harremanak sendotu egin dira:

-Alde batetik, gure bi Gobernuetako sailburu eta ordezkariak hainbat arlo sektorialetan lan bilerak antolatu eta akordioak sinatu dituzte. Horien artean, Osasuna, Hezkuntza eta Kultura, Azpiegiturak eta Ingurugiroa, Ekonomia eta Lehiakortasuna.

-Bestetik, Nafarroako Gobernuak Euroeskualdean parte hartzeko eskaria aurkeztu du. Estatutuak aldatu ditugu Nafarroaren sarrera egiaztatzeko.

-Gure bi Gobernuen arteko harremanak sustatu nahi izan ditugu, guztira 18 arlo jasoko dituen Lankidetzaren Protokolo berria onartuz.

Ziur gaude, elkarlanaren bidez hiritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuak hobetu egingo ditugula eta hazkunderako aukera berriak izango ditugula ere.

Gaurko aurkezpen honetan Lankidetzaren bost xede azpimarratu nahi ditugu:

Bat. Garapen ekonomikoa, lehiakortasuna eta enplegu aukerak.

Itun ekonomikoa partekatzen dugu eta Ogasun politikak garatzen ditugu. Ekonomiaren hiru sektoreetan enpresa asko daude gure bi Erkidegoetan lanean eta elkarlanean. Berrikuntza eta Nazioartekotze politiketan esperientziak eta eginkizunak partekatu nahi ditugu. Enplegu aukera berriak sustatzea gure lehentasuna da.

Bi. Gizarte zerbitzuak.

Gizarte eredu bat partekatzen dugu. Hiritarrentzako oinarrizko zerbitzuak lehenesten ditugu gure politika publikoetan. Krisialdi ekonomikoak ekarri dituen ondorioak ezagutzen ditugu eta okerren dauden pertsonen eta familien duintasuna bermatzea da gure helburua. Honekin batera, Osakidetzak eta Osasunbideak elkarlana areagotuko dute.

Hiru. Hezkuntza, Kultura, Gazte politika eta Euskara.

Belaunaldi berri batentzako ahalegina azpimarratu nahi dugu. Belaunaldi berri horrek gure arteko harremanak normaltasun osoz garatu behar ditu. Helburu estrategiko hori Hezkuntzan eta Unibertsitatean oinarritu behar da. Helburu hori, besteak beste, Kultura eta Kirol eginkizunetan sustatu daiteke. Helburu horrek Euskara hartu dezake harreman hizkuntza modura. Arlo honetan, Euskal Irrati Telebistaren programazioa Nafarroan normaltasun osoz hedatzeko konpromisoa hartu dugu.

Lau. Bakea eta Bizikidetzaren.

Indarkeriaren historia elkarrekin jasan dugu eta Bizikidetzaren etorkizuna elkarrekin eraiki nahi dugu. Beti ere Memoria aitortuz eta biktimen eskubideak bermatuz. Bakea eta Bizikidetzaren arloan eginkizunak eta programak partekatu nahi ditugu.

Bost. Autogobernuaren etorkizuna.

Bi Gobernuak jasan dugu eta jasaten ari gara Espainiako Gobernuaren jarrera zentralizatzailea. Autogobernua, Itun Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmena gure ongizatearen gakoa izan da. Horregatik nahi dugu elkarrekin defendatu, eguneratu eta areagotu ere.

Gure foru-lurraldeen eskubide historikoak lotzen gaituzte eta, egun, eskubide hauek babesteko helburuak elkartzen gaitu. Horretarako, historiak “foru baimena” sistema eskaintzen digu eta sistema hau eguneratu nahi dugu Estatuarekin benetako alde bikotasuna bermatzeko.

Somos dos Comunidades históricas, vecinas, unidas por lazos sociales, económicos, culturales e institucionales. Tenemos la constatación práctica de que trabajando juntos podemos lograr mejorar la calidad de vida y oportunidades en nuestras ciudadanas y ciudadanos.

Esa fue la razón que impulsó al Gobierno Vasco y al Gobierno de Navarra a firmar un primer Protocolo de colaboración el año 1995 y a actualizarlo en 2009.

Esa ha sido la razón por la que durante este último año hemos intensificado nuestras reuniones bilaterales para avanzar en acuerdos de colaboración sectorial. Ha sido también la razón por la que Navarra ha solicitado su incorporación a la Eurorregión Aquitania–Euskadi.

Nuestro objetivo compartido es afianzar y extender las bases de esta cooperación. Esta es la razón por la que hoy firmamos este nuevo Protocolo de colaboración.

Hemos seleccionado 18 áreas de interés común que presentamos en torno a cinco ejes estratégicos:

- Uno: Desarrollo económico, Competitividad y Empleo.
- Dos: Protección social.
- Tres: Educación, Cultura, Juventud y Euskera.
- Cuatro: Paz y Convivencia.
- Cinco: Futuro del Autogobierno.

Compartimos la prioridad de reactivar la economía, ganar competitividad y facilitar nuevas oportunidades de empleo. Tenemos la oportunidad de avanzar juntos en proyectos de Innovación, Internacionalización o apoyo al emprendimiento.

Compartimos un modelo de Protección social que prioriza la atención a la persona y la solidaridad. Nuestra prioridad es la garantía de unos servicios públicos, universales y de calidad en Salud, Educación y Protección social.

Compartimos la necesidad de acercar a las nuevas generaciones. En este sentido la Educación, Universidad y Formación Profesional; las iniciativas culturales; la política de juventud; el Euskera, son puntos de encuentro y

relación que debemos dinamizar y abrir a la colaboración. En este punto, compartimos la voluntad de regularizar la difusión de EITB en Navarra y estamos trabajando en una solución definitiva.

Compartimos un mismo compromiso para consolidar la Paz y la Convivencia desde el encuentro social. Compartimos la necesidad de garantizar los derechos de verdad, justicia y reparación. Vamos a asentar la Memoria sobre unos mismos pilares de compromiso pleno con los Derechos Humanos y la dignidad de todas las personas. Nos planteamos avanzar en una auténtica convivencia, que trasciende la mera coexistencia.

Compartimos, por fin, nuestra apuesta por el Autogobierno, su adecuación y actualización. Hemos sentido la misma inquietud por la estrategia centralizadora del Gobierno Español. Hemos conocido el ataque a nuestras competencias, el cuestionamiento del Concierto y el Convenio Económico, la pérdida paulatina de la naturaleza política de la Autonomía y las dificultades para garantizar el cumplimiento de lo pactado.

Compartimos una alianza a favor de nuestro Autogobierno, que entrelaza sus raíces en nuestra historia, en los Derechos Históricos de los Territorios Forales. Una alianza a favor del reconocimiento de nuestra singularidad. Una alianza que tiene como objetivo defender conjuntamente nuestro Concierto y Convenio Económico.

Una alianza a favor del reconocimiento mutuo en nuestras relaciones con el Estado; un Estado en el que se reconozca su verdadera dimensión plurinacional. Una alianza a favor del diálogo y el acuerdo para avanzar en los objetivos políticos; también a favor de la bilateralidad como sistema de garantía, un sistema que encuentra su precedente histórico en el “pase foral” y la “sobrecarta.”

Compartimos nuestro deseo de seguir caminando juntos y contamos con una alianza para afianzar y avanzar en nuestro Autogobierno. La razón es la constatación práctica, histórica y contemporánea, de que Autogobierno es sinónimo de bienestar.

Eskerrik asko.